

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko martxoaren 20a / 257. zenbakia / 20. urtea

- HERRIKO KONTUAK **Korrika** 05
- KIROLA **Zarauzko squash liga** 08
- AIAKO BERRI **Udalbatzarra** 11

- IRITZIA **Bittor Lizarribar** 18
- MOILA BAZTERRETIK **Garbiñe Manterola** 19
- HERRITARRA **Garikoitz Erkizia eta Iker Zumeta** 25



Etorkinak hizkuntza
batean: **euskara**

Lau talde osatu dira euskara ikasteko 44 etorkinekin. Kanpotik datozenak gero eta gehiago dira, baina baita euskaldunak ere.

16 LITERATUR LEHIAKETA

EUSKARAZ GAZTE
orioraia

- 1 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketaren helburua idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako gazte-jendearen artean.
- 2 Lehiaketara aurkeztzen diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3 Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.
- 4 Lehiaketan parte hartzeko, oriotarra edo aiarra izan behar da edo, bestela, Orion edo Aian bizi, eta 16 urte beteta izan behar dira.
- 5 Lanen luzera librea izango da.
- 6 Epaimahalak gaiaren gertutasuna baloratuko du.
- 7 Lehiaketak bi atal izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).
- 8 Ipuinetan gaia librea izango da; bertso eta olerkietan, berriz, gai mugatua izango da aurren: natura eta ingurumena.
- 9 **Lanak aurkezteko era:**
Lanak makinaz idatzita aurkeztu behar dira. Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon aipatu. Lanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituen eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.
Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbidea eta telefonoa.
- 10 Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso atal bakoitzean.
- 11 Sariak hauek izango dira:
Ipuinen atala
1. saria: 300 euro
2. saria: 200 euro
3. saria: 150 euro
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
Bertso edo olerkien atala
1. saria: 300 euro
2. saria: 200 euro
3. saria: 150 euro
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
- 12 **Epaimahala.** Epaimahala Orioko Udaleko ordezkari batek, Aiako Udaleko ordezkari batek eta KARKARA aldizkariako lide batek osatuko dute.
Epaimahalak hutsik utz ditzake sariak.
- 13 **Lanak aurkezteko tokia eta epea.**
Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxean aurkeztuko dira.
2009ko apirilaren 24a izango da horretarako azken eguna.
- 14 Antolatzaileek berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.



KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Mikel Aranzabal, Pat Cowie,
Miren Etxeberria, Eli Lasa eta
Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Bittor Lizarribar, Xabier Sukia eta
Nikolas Zendoia

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

Banatzaleak

Ane Etxabe eta
Ander Mujika (Orio)
Irene Aldai (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua

SS-346/90

ISSN 1132-1105

Tirada 3.100 ale

KARKARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berrieman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Ibarretxe naiz ni kottadua...

MARTXOAREN 14AN, ORIXE SARIKETAN TXAPELA IRABAZI ZUEN IBAI ESOAINEK. KARTZELAKOAN BOTATATAKO BERTSOAK JASO DITUGU. GAIA: ORAINTXE KENDU DIZUTE BEGIETAKO ESTALKIA.

Ibarretxe naiz ni kottadua
Ni tristea ni gaixoa
Nerekin lehian ibili dira
Larrosa eta usoa
Lehen guztia urdin zegoen
Ta orain berriz lausoa
Hauteskundeak bukatu dira
Eta a ze frakaso
Estalki honek badu izen bat
Boterean abusoa.

Kalerik kale ibili zuten
Ibarretxeren izena
Baina ze aldea hauteskundeen
Aurretik izan nintzena
Ta orain nere gela barruan
Triste aurkitzen naizena
Estalkia ere ia kendu det
Baina barruan det pena
Lehen beltz ikusten nuena ere
Orain beltz-beltz daukat dena.

Diruari ta botereari
ene zenbat amodio
Patxi da laister lehendakari
eta ze amorrazio
baina pentsakor jarri behar nuke
pentsakor eta serio
estalkirikan eztaukat baina
halare zerbait badio
lehen dena neukan ta Ibarretxe
besterik ez nun desio.



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

[illegible]

ORIOKO IBILBIDEKO HAMAR KILOMETROOAK SALDUTA DAUDE DAGOENeko

Apirilaren 2an dator Korrika *ongi etorri* esanez

Martxoaren 28an izango da Korrikaren egun handia, baina kultura egitarau zabalarekin gozatzeko aukera izango da egun gehiagotan ere.

Martxoaren 24an, Jon Maia-
ren *Bidaia intimoak* doku-
mentalarekin hasiko da Korri-
ka kulturala, 19:00etan kultur
etxean.

25ean, 19:00etan, Amets
Arzallus bertsolariak eta Txue-
ka argazkilariak Boliviari
buruzko ikus-entzunezkoa
eskainiko dute kultur etxean.

Martxoaren 27an, arra-
tsaldean, haurrentzako jola-
sak izango dira Gaztelekuan,
Txurumuskik antolatuta.
19:00etan, Usurbilgo gazte tal-
de batek *Soffing* antzerkia
emango du gazteentzat kul-
tur etxean. 3 euro balio du
sarrerak eta biltzen den dirua
antzerkilarientzat izango da.

Larunbatean, 28an, eus-
kaltzaleen bazkaria eta Erri-
kotxiak antolatutako bertso
txapelketaren lehen saioa
izango dira Satxota sagardo-
tegiaren eta 25 euro balioko du.
19:00etan, Batukada taldearen
emanaldia izango da plazan.
Gauean, Korrika Gaua ospa-
tuko da eta, horrekin batera,
Errikotxiakoen bertso txapel-
ketak jarraituko du, tabernaz
taberna. Martxoaren 28an eta
Korrika egunean arropa sal-
tzeko postuak jarriko dituzte
plazan. Itziar kirolak dendan
ere izango da arropa berezia
salgai gaurtik aurrera.

Igande eguerdian, Viven-
cias taldeak kontzertua emango
du kultur etxean.

Apirilaren 1ean Andu Ler-
txundik *Orio*, euskara eta ni
hitzaldia eskainiko du udal-
batzararen aretoan.

Apirilaren 2an, ostegune-
an, pasako da Korrika Oriotik,
baina lehenago, 15:00etan,



2003ko apirilaren 6an ateratako argazkia: Korrika, herriko zubitik pasatzen.

KARKARA

Korrika Txikia egingo dute
herriko haurrek.

LEKUKOA ESKUTIK ESKURA
Apirilaren 2an Korrikako ibil-
bidean Oriori dagozkion

hamarkilometroak saldu dira
dagoeneko. Txurumuskik eta
Harribilek Mapillen hartuko
dieta lekukoa aginagarrei eta
Intxurretara iristean OKK gaz-
te asanbladakoei emango die-

Ongi etorri!

Hori da aurtengo Korrikaren leloa. Omenduak
euskararen eskurapen edo, hainbat kasutan bezala,
berreskurapenean aritu direnak izango dira. Baina
AEKren *ongi etorria* haratago doa, era batera edo
bestera euskararen alde egiten duten guztiengana
iritsi nahi du. Hori horrela, Orioko Korrika
Batzordeak antolatutako ekintzetan parte hartzera
gonbidatu nahi nituzke oriotarrak. Lan handia egin
dute Oriok ere *Ongi etorri* hori jaso dezan, adin eta
gustu guztietarako ekintzak prestatuz, eta euskarak
zuen parte hartzea behar du. Nire aldetik, eskerrak
batzordekideei: ondo pasa, euskaraz!

UXOA ARRUTI | UROLA KOSTAKO KORRIKAKO ARDURADUNA

te. Zaragueta eskolakoek eta
Talai Mendikoek jasoko dute
Sarikolan eta Botalekuraino
eraman, han Orioko Herri
Ikastolari emateko. Karkara-
ren txanda izango da gero eta,
Mariaerota baserritik abia-
tuta, Txankan Udalaripasa-
dio. Udala izango da lekukoa
herriko kalean sartuko duena
eta ezker abertzaleak eta Balea
elkartek Herriko plazatik
abiatuta, herria zeharkatu
ostean, berriz ere plazara itzu-
li beharko dute, Ikastolako
langileak zain izango baitira
lekukoa zubitik barrena
Zarautz aldera eramateko.
Herrio eta Goiko Kaleko fes-
ta batzordea, Xuain izango
dira aldapan goralasterka has-
teko prest eta Xuaiko erre-
buelta baino lehen hartu eta
Orioko Arraun Elkartekoek
egingo dute azken txanpa.

MARTXOAREN 26AN HASI ETA APIRILAREN 3AN BUKATUKO DA

Soinua eta ikuskizuna dakartza 13. Musika Asteak

Martxoaren 26an hasiko dute Danbolin Musika eskolakoek aurtengo Musika Astea. Apirilaren 3a bitartean, zortzi kontzertu eskainiko dituzte herrian.

Elkartruke kontzertuarekin hasiko dute 13. Musika Astea oriotarrek, hilaren 26an eta Usurbilko Zumarte musika eskolakoekin batera eskainiko dute ikuskizuna, Orioko kultur etxean, 19:00etan hasita. Koru banaz gain; folk; esku-soinu; txistu; eta biolin, flauta, gitarra taldeak izango dira.

Elkarrekin egiten duten bigarren saioa izango da, hilaren 11n Usurbilen izan baitziren Danbolinekoak.

5 EGUN JARRAIAN

Ostirala eta asteburua jai hartuta, martxoaren 30ean ekingo diote, berriz, kontzertuak emateari. Instrumentuko ikasle txikien txanda izango da egun horretan. 18:30ean hasiko da eta beste saio guztiak bezala, kultur etxean izango da.

Hilaren azken egunean, berriz, bi emanaldi izango dira. 17:30ean, tailerreko ikasleena aurrena: *Instrumentuen bidaia* ipuina kontatuko du narratzaileak eta 80 hurrek abestu egingo dute, musikatresnen laguntzarekin. 18:30ean, berriz, bigarrena; bertan pianoa, klarineta, saxoa... joko dituzte txikiak.

Apirilaren 1ean ere beste bi kontzertu eskainiko dituz-



Danbolinek hamahiru aldiz antolatu du dagoeneko musika astea.

KARKARA

Apirilaren 2an Ibaiaren kontzertu pedagogikoa izango da eta euskal errepertorio klasikoko doinuak emango dituzte

te: ikasle helduak 17:30ean hasiko dira tresnak astintzen eta 19:00etarako bukatuko

dute, hurrengo saioko musika taldeei lekua egiteko.

Ostegunean, apirilaren 2an, Ibaia taldearen kontzertu pedagogikoa izango da, 18:00etan hasita. Laura Latiendak, Iñaki Dieguezek, Ritxi Salaberriak eta Igor Telletxeak osatutako taldeak euskal errepertorio klasikoko zenbait doinu emango ditu.

Apirilaren 3an izango da azken saioa, 18:00etan eta Danbolin musika eskolako ikasle helduenek agurtuko dute 13. Musika Astea.

LABUR

INGURUMENA Hondartza garbitzeko

Surfrider Fundazioak elkarrekin Europa osorako antolatutako hondartzak garbitzeko eguna martxoaren 21ean izango da gurean. 11:00etan hasita Antillako hondartzako zakarrak bilduko dira eta, gero, hamaiketakoarekin berreskuratu lanean galdutako indarrak.

POLITIKA Juan Priede gogoan

Juan Priede Orioko Udaleko PSE-EE alderdiko zinegotzia zena tiroz Gure Txoko tabernan ETAK hil zuela 7 urte beteko dira martxoaren 22an eta haren omenez egin zuten, hilaren 14an, lore eskaintza eta hura gogoan izateko ekitaldia, Orioko hilerrian. Han izan ziren Juanen familiakoak, alderdikideak eta haren lagunak.

JENDARTEA Ordutegi aldaketa

Martxoaren 29an udako ordutegia jarriko da martxan. Beraz, goizeko 02:00etan ordubete aurreratu beharko da erlojua eta 03:00ak direla jarri. Lotarako edo parrandarako denbora gutxixeago izango dugu, beraz. Eguna bat-batean luzatuko dela irudituko zaigu.

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIK

Igeltseritza

699 46 76 21

943 13 10 37

Zaragueta Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52

e-mail: 012137aa@hezkuritza.net

SS

Iluspaidegia eta estetika mistoa

San Madox, 2

Tel: 943 833170

MARTXOAREN 31 IZANGO DA ESKAERA AURKEZTEKO AZKEN EGUNA

Udako lanpostuetan izena emateko epea zabalik

16 lagun kontratatuko ditu Udalak, udako sortzen diren lanpostuak betetzeko.

Udarako sortuko diren lanpostuak betetzeko deialdia egin du aurren ere Udalak. Kanpineko zaindari izateko bost lagun, komunak garbitzeko lau, Antilla hondartzako kabinak garbitzeko bat, bost udaltzain laguntzaile eta turismo bulegorako eta kanpineko harrerarako beste bat kontratatuko ditu, aldi baterako, lan-zuzenbideko erregimenean. Izena emateko nahitaezkoa izango dalangabetua izan eta gutxienez 18 urte edukitzea. Interesatuak udal bulegoetan eska ditza-kete deialdiaren oinarriak eta eskaera orria. Bertan aurkeztu beharko dute gero, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era, martxoak bukatu aurretik. Lanpostuak betetzeko egin beharreko probak, berriz, apirilaren 4an izango dira kultur etxean, 09:00etan hasita.

GARBITZAILE EDO ZAINDARI Udalkanpineko komunetako edo hondartzako kabinetako garbitzaile izateko oriotarra izan behar da. Gainontzekoan, hauek dira baloraziorako irizpideak: egoera ekonomiko-familiarra, 0tik 3 puntura; euskarazko ahozko proba, 0tik 4ra; kultur testa, 8 puntu arte.



16 lagun kontratatuko ditu Udalak, horietako bat turismo bulegorako eta kanpineko harrerarako.

KARKARA

Zaindari izateko, berriz, beharrezkoa da euskaraz jakin eta gidatzeko B1 baimena izatea. Kultur testa 0tik 10 puntura baloratuko da; egoera ekonomiko-familiarra 0tik 3ra; euskarazko ahozko proba 0tik 5era; 0tik 2ra atzerriko hizkuntzak jakin eta egiaztatzea.

UDALTZAIN LAGUNTZAILE Euskaraz jakitea eta gehienez 35 urte izatea dira udaltzain laguntzaileentzako derrigorrezko baldintzak. Zirkulazio seinaleei eta bide segurtasunari buruzko ezagupenen proba teorikoa 0tik 6 puntura bitartean baloratuko da; idatzizko proba (txostena edo atestaturia idaztea) 0tik 4ra; egoera ekonomiko-familiarra 0tik 2ra; eta euskarazko ahozko proba 0tik 3 puntura.

TURISMO BULEGORAKO Oinarrizko Batxilerra, Administralorreko LH1 edo pareko titulua, EGA eta ingelesezko FIRST agiriak eskatuko dira. Bi titulu horiek ez dituztenek azterketa egin beharko dute. Ingelesko CAE eta PROF-

Hautagaientzako probak apirilaren 4an izango dira kultur etxean, 09:00etan hasita

CIENCY eta atzerriko hizkuntzak ere baloratuko dira: 4, 5 eta bana punturekin. Jar-duera Turistikoetarako tekniko titululudunak 5 puntu jasoko ditu. Azkenik, gehienez 5 puntu balioko duen ahozko elkarrizketa egin beharko da.



RAMIRO

erreportaje
digitalak

943 83 10 48





Iribarrek, lautik hiru partida galduta, zaila du sailkapenean gora egitea.

KARKARA

AGIRRE ETA AZKONOBETA ONENEN ARTEAN IZANGO DIRA BIGARREN ALDIAN

Hiru oriotar ari dira Zarauzko Squash Ligan

Iaz oriotarrek erakutsitako maila on berarekin hasi zuten aurten ere Orioko hiru mutilek Zarauzko Squash Liga.

Otsailaren 16an hasita, hiru oriotar ari dira Zarauzko 2. Squash Ligan lehian: aurreko urteko txapelduna, Iñigo Agirre, final laudenetara iritsi zen Xabier Iribar eta txapelketa honetan lehen aldiz jokatu duen Jose Luis Azkonobieta.

Aurreneko biak A multzoan, onenen artean, daude: Agirre lehen taldean eta bigarrenean Iribar. Azkonobieta, aldiz, B2an dago, eta aurten gora egiteko asmoz dabil.

SAILKAPENA

Martxoaren 22an bukatuko dute aurreneko aldia eta, beraz, ordurarteko denbora izango dute beren multzoko aurkari guztien kontra jokatzeko. Irabazten duten parti-

da bakoitzeko puntu bana lortzen dute.

Momentuz, Iñigo Agirre lehen postuan dago jokatu-tako hiru partidak irabazita. Bigarrena Iñigorekin berdinduta dago puntutan, baina partida bat gehiagorekin.

Xabier Iribar, berriz, jokatutako hiru norgehiagoka galdu eta bakarira irabazita bere taldeko azkenaurrekoa da: *Aurtengo txapelketa nola zihoran ikusita, ez nuen partida bat bera ere irabazteko itxaropenik eta bat, behintzat, irabazidut. Ez dut uste sailkapenean gora egitea lortuko dudarik;* adierazi digu Xabierrek.

Jose Luis Azkonobieta, ordean, oso ondo ari da orain arte. Urte batzuk zerratzen squash txapelketetan parte hartu gabe eta, bueltatu denean, jokatutako lauetatik hiru irabazi ditu eta bigarren dago bere taldean. 3 puntu ditu, aurrekoak baino 2 gutxiago.

Momentuz, bere taldeko lehen postuan dago Iñigo Agirre, jokatutako hiru partidak irabazita

BIGARREN ALDIA

Bigarren aldia jokatzeko A1-eko azken biek B1-eko 2. eta 3. sailkatuen aurka igoera-jai-tsierako partidak jokatuko dituzte. B1-eko lehena, aldiz, zuzenean joango da onenen multzora. Horrela, bigarren aldirako multzoak berri eta berrosatu egingo dira. Berdin egingo dute A2-an eta B2-an ere.

Hurrengo aldia, finalak, alegia, maiatzaren 11n hasiko dira.

LABUR

ARRAUNA

Zortzikoa Londresen

Orioko Arraun Elkarteko senior eta beterano kategoriatako zortzikoak Londresen izango dira martxoaren 21ean eta 22an *Head of the River Race 2009* estropada jokatzeko.

Hilaren 21ean uretan izango da Urko Redondok, Josu Indok, Fernando Balentziagak, Joxean eta Aitor Olaskoagak, Iñigo Mujikak, Gorka eta Unai Etxeberriak eta Xabier Canok osatutako ontzia. Orain arte lortutako emaitzarik onena 2004ko 9. postua izan da.

Beteranoetan 182 zortziko izango dira lehian: 125 gizonetzkoek osatutakoak, 30 emakumetzkoek eta 30 mistoak. Oriotarrak gizonetzkoen B kategorian 18. aterako dira.

PILOTA

Herriartekoan ez gara izango

Herriarteko Pilota Txapelketan izena emateko epea irekita dago eta eskuz bina-ka, palaz eta zesta-puntaz aritzeko aukera izango da. Lehian aritzeko kategoria guztietako pilotariak behar dira eta oriotarrek ezin izango dute parte hartu, jubenilik eta kadeterik ez dutelako.

LILATONA

17 korrikalari

Emakumeen aldeko Lilaton lasterketa ospetsuan adin guztietako Orioko eta Aiako 17 emakumek egin zuten korrika martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean: 16 oriotar eta aiar bat.

Aurtengo edizioan inoizko parte hartzerik handiena izan zen Donostiako proban eta 1.300 emakume aritu ziren.

PLAIEROAK Ligan dira

Xixarioko neska plaiero-etako Ligarako sailkatu ziren, martxoaren 15ean lehen aldiko azken partidada jokatu. Laugarren bukatu dute aurreneko itzulia. 12 norgehiagoka izan dituzte eta horietatik 8 irabazi, 2 berdindu eta beste 2 galdu dituzte.

Hilaren 29an jokatu dute finalerdietako joaneko partida; Rovelliren aurka neurtu beharko dituzte indarrak. Itzulikoa apirilaren 18an izango dute.

KEPA LOIDI

Kepa Loidiko mutilek martxoaren 22an bukatuko dute lehen aldia. Momentuz, sailkapeneko 10. dau-de eta, hortaz, kopa jokatu lukete gero.



Gogor ari da Xixario taldea.

HARMAILATIK

Amerikara, pilotan aritzera

Aurreko hilabetean, otsailean hain zuzen ere, San Frantziskon egon gara, euskal selekzioak deituta. Normalean Euskadiko Txapelketa banaka eta binaka irabazten dutenentzat izaten da sari hori eta laugarren bat hautatzen du Euskal Federazioko teknikariak. Kasu honetan neroni aukeratu ninduten, eta deitu orduko esan nion baietz bidaiari. Otsailaren 11tik 19ra izan zen abentura. Nahiz eta bidaia oso luzea izan, 14 ordu baitira hegazkinean, nahiko ondo ibili nintzen Ameriketan.

Asteazken arratsaldean iritsi ginen hara: ekipajea hotelan utzi eta Euskal Etxera, zuzenean. Han zeuden zain aspaldian lanera jondako euskaldun zaharrak, nahiguen guztia eskatu orduko egiteko prest. Iritsi orduko haien seme-alabekin harremanetan jarri ginen; haiek ere euskaraz hitz egiten zuten. Aurreneko hiru egunetan, turismo dezente egin genuen haien kontura; esaterako, metroa hartu eta San Frantzisko ikustera joan ginen. Inolaz ere ez genuen pentsatzen horrelakoa izango zenik Amerika, dena



ENEKO GALARRAGA
PILOTARIA

Partidak bukatu bezain pronto, 500 bat lagunentzako mahaiekin betetzen da frontoia festarako

pelikuletan bezalakoa. Larunbatetan eta igandeetan festa egiten da Euskal Etxean eta harrituta geratu ginen antolaketarekin: partidak bukatu

bezain pronto 500 bat lagunentzako mahaiekin betetzen dute frontoia festarako. Dantzak, meza, musika, afari eta bazkariak... dena euskal giroan. Astelehen gauean Las Vegas ikustera joan ginen eta handik ere harrituta etorri, basamortu erdian hainbeste argi pila, kasino ikaragarriak... ikusita. Azken bi egunetan pixka bat deskantsatu eta buelta egin genuen, beste 14 ordu hegazkinez. Oso gustura etorri naiz han izandako tratuaengatik eta baita hango gaueko parrandarekin ere.

Kirolari dagokionez, bi partida jokatu genituen, biak ere lagun artekoak: bat larunbatean, Larrañagarekin, Onsaloren eta Diezen aurka; eta bestea igandean, Onsalorekin, Larrañagaren eta Diezen kontra. Biak irabazi genituen, larunbatekoan kaskarrago aritu baginen ere.

Hona bueltatuta, hainbat lehia jokatu ditugu eta pena handiz esan behar Euskadiko txapelketako txapeldunorde garela. Orain Berria, Biharko Izarrak, Elgeta eta GRAVN izeneko txapelketak jokatzen ari gara.

ZUMINTZA hiz-aspandegia
markak
pailak
maltak
deputazio berri eta berri
SOLARIUM **tel: 943 83 17 66**

ZAPATA KONPONKETAK
Lanegutia: 09:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:00
Larrietatik: 09:00 - 14:00
Berritxo errepidea, 101

iñaki argazkiak
caperochipi
ezkontzeko asmorik bai?
www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

egunero-egunero.
zuekin...
www.karkara.com
Konektatua!

Kelso Larrasoluz
lanak
kelso larrasoluz 647028485
larrasoluz eta larrasoluz aldiak eta
mantentze, urteak eta sistemak eta
komunikazio espezializatuak.

ATC **TORREALDAY**
aholkularitza
Agentes: Olariaga
Berezitasunak:
✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa, Txekin.
✓ Aseguru artekanitza.
✓ Finken administrazioa.
Bazkalde 4, beheko. Tel: 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 93 **www.atctorrealdays.com** e-mail: **olariaga@olariaga.com**

IÑAKI GARMENDIA LAJA | SOINUJOLEA

“16-17 urte nituela ere, Aristerrazuk ospea bazuen”

Iñaki Garmendia Laja
Aristerrazuko erromeriara etorri zen martxoaren 8an, Mikel Alustiza pandero jolearekin. Egun batzuk lehenago kaleratutako disko berria Andatzan bertan estreinatu zuten. Bi gauza horiek aprobetxatuz, soinu-jolearekin hitz egin dugu, erromeriaz eta diskoaz.

Maiz jo duzu Aristerrazun?

Bai, urte askoan. Kaxiano, Martin, Landakanda, Imanol Urkizu... lagun askorekin aritu naiz hemen, eta baita beste bazter askotan ere...

Nola ikusten duzu erromeria gaur egun?

Herriko festetan nahiko ondo eutsi diote, baina festetatik kanpora asko galdu da. Festetan dantza egiten da, gu joaten garen tokietan behintzat bai. Gehienak, gaur egun, ezkondukoak dira eta eda-de pixka bat dutenak. Lehen gazte gehiago joaten zen erromerietara.

Aristerrazuk, berriz, eutsi egiten dio. Badago talde eder bat hemen juntatzen dena, eta inguruko erromerietara joaten da. Koadrila hori da gehien mugitzen dena: Lasturrera, Azkoitiara, Asteasura...

Hiri handietan, igual, jendea entzuten egoten da dantzaren egin beharrean, kontzertu bezala hartuta, dantza egiten ez dakielako edo nahi ez duelako.

Aristerrazuk garrantzia du, hortaz?

Bai, aspalditik, gainera. Mutil gazte nintzela hasi nintzen mugitzen, 16-17 urterekin, eta orduan ere ospea bazuen, erromeriaz eta. Eta gaur egun ere inportantea da. Trikitilari gazte asko dago erro-



Goiz etorri ziren Laja eta Mikel erromeriarako dena prestatzeko.

KARKARA

Aristerrazuko koadrila da erromerietan gehien mugitzen dena. Hain gustura eta ondo egiten dute!

merietan jotzeko moduan, baina erromeria asko ez dago.

Garai batean, auzo bakoitzean festa egiten zen eta han jotzeko aukera izaten zuten; Azkoitian, Errezilen... dene-tan jartzen zen soinu-jole bat eta neska koxkor bat. Baina orain ez dago hori.

Gaur egun ere trikitilari gazte asko dago erromerietan jotzeko moduan, baina erromeria asko ez dago

Aristerrazun dantza suelta oso gustura egiten da. Askotan, hiruzpalau baltsedo jotzen ditugunean, batek kei-nua egiten dit suelta pasatzeko. Eta hain gustura eta ondo egiten dute! Normala da eskatzea; beharrezkoa iruditzen zait, gainera.

Ordutegia aurreratu dute hemen. Zer iruditzen zaizu?

Aldaketa egin ondoren egon naiz bi aldiz, eta erromeria politikak ikusi ditut nik. Oso. Eta umeak dituzten eta hurrengo egunean lanera joan behar dutenentzako ere berandu, baina igual hobe horrelaxe. Itxura polita ematen zuen behintzat.

Non zuztarra, han adarra diskoa atera berria duzu.

Bai, Mikelekin egin dudana bigarrena da. Denetik pixka bat dago diskoan: habanera, pasakalle, baltsa, mejikana bat euskaraz, lehengo zahar batzuk eta beste batzuk berriak. Dagoeneko, saltoki handietan eta betiko disko eta liburu dendetan dago, eta saltzeko batzuk badituzte hemen ere, Artisterrazun.

Jende onaren laguntza izan dugu: Landakanda bera, Migel Boserekin ibili den Mikel Irazoki, baxua jotzen, eta haren anaia Fernando baterian. Gauza piloa ikasi ditugu Mikelengandik.

Kanturik gabe 2 pieza dira, eta beste guztiak kantatuta. Nirekin dabilen Mikel Alustizak kantatzen ditu gehienak, Landakandak trikiti bat, eta beste porrusalda batean Mikel eta Landakanda elkarrekin txandaka aritzen dira.

Noiz arte izango dugu zu taula gainean ikusteko aukera?

Oraindik nahiko gustura aritzen naiz jotzen, eta eza-gunak leku askotan dauzkagu. Orduan, makaldu arte jardun egin beharko dugu! Askotan gaueko lana izaten da edo egun osoan ere bai batzuetan, baina ez naiz nekatzen, ohituta gaude eta. Barrio askotan ibili gara goizetik joan eta berandu arte jardun.

Lo ondo eginez gero, ondo!

UDALETXEKO LANAK EGITEKO LEHIAKETA ERE MARTXAN DA

Udalak aisialdiko txabolen ordenantza arautu du

Martxoaren 4an egindako ohiko udalbatzarrean aztertutako puntu guztiak onartu ziren; horietako bakarra aho batez.

Azken udalbatzarreko gai zerrendak 4 puntu bazituen ere, 3 aztertu ziren, utzi egin baitzen aurreko bilkurako akta onartzearena. Izan ere, Santio Erreka auzoan lur-trukaketa egingo du Udalak: sara-suatarrek urkanalizazioak egiteko egokia den lur sail bat emango diote Udalari, eta honek, ordainetan, bide bazterrean duen lur zatia Arratolakoiei. Trukaketa egiteko era aldatuko da orain eta aurreko bilerako aktan jaso gabe zegoen.

AISIALDIKO TXABOLAK

21 abere baino gutxiago dituzten nekazariak gehieneko 70 metro koadro azalera eta 4 metroko altuera duen etxola bana eraiki ahal izango dute, aho batez onartu zen aisialdiko txabolen ordenantzaren arabera. Modu horretara, animaliak eta baratza denborapasatzat dituztenen baldintzak araututa geratzen dira. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAOn) martxoaren 10ean argitaratu zen iragarkia lehen aldiz, baina testuan okerra egin zutenez, berriro argitaratu beharko da. Ondoren jendaurrean egongo da ordenantza, norbaitek alegazioak aurkeztu nahi baditu.

LANAK

9/2008 Errege Dekretuko legeko udal inbertsiorako estatu fondo bidez finantzatzeko den udal eraikinaren eraberritze lanaren kontratazioa abiatzea ere onartu zuten, aldeko bost botorekin eta ezker abertzalearen aurkakako birekin.

Lehiaketa irekita dago, beraz, eta baldintza ekonomiko-administratiboan ple-



Armendigaineko errotonda ordaintzea onartu zen udalbatzarrean.

KARKARA

Udaletxeko lanak egiteko lehiaketa irekita dago. Hilaren 20a izango da proposamenak aurkezteko azken eguna

gua ere onartuta dago. Martxoaren 6an eman zen iragarkia argitaratu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hilaren 20a arte izango da proposamenak aurkezteko epea.

Iturain alkateak adierazi duenez, apirilaren bukaerarako lanean hasi nahi lukete. 6 bat hilabete pasako dira erakina eraberritu arte eta azarorako dena prest izatea espero dute. Lanek iraun bitartean, kultur etxean izango dira.

Bestalde, azken puntuan,

Armendigaineko errotonda egiteko erabilitako 251.250 euroak ordaintzea onartu zen. Udalak Diputazioarekin hitz egin eta biribilgune hori finantzatzeko diru laguntza lortu zuen. Aldundiak Udalari eman dio dirua eta Udalak, era berean, lanean aritu diren hiru promotoreen artean banatu beharko du. Hala ere, 225.567 euroko muga pasatzen duten gastu guztiekin egin behar den bezala, ordainketa egiteko Udalbatzarrean onartzea beharrezkoa zen.

Azkenik, Udalak utzitako lokala duen Alkar elkarteak parekotasun legea betetzen ez duela ohartarazi zuen Antxon Gomezek eta Udalak esku hartu behar lukeela —kontratua bien artekoa baita—, emakumeek ere bazkide izateko aukera izan dezaten. Eskaera aktan jaso zen, aurrerago aztertzeko, baina ez zen bozkatu.

LABUR

INGURUMENA Lore azoka

Apirilaren 25ean eta 26an egingo den Landare Berezien azokan laguntzeko prest dauden boluntario eske dabilta Iturraranen. Parte hartu nahi dutenek apirilaren 6a baino lehen deitu beharko dute Iturraranera edo Aiako kultur etxera.

PROTESTAK Estampaciones Gipuzkoan borrokan

Andatza auzoan dagoen Estampaciones Gipuzkoa SLko 9 lagunen kaleratzeko salatzeako protestak egingen ari dira langileak. Hilaren 4an elkarretaratzea egin zuten Zarauzko udaletxe aurrean, *Estampaciones Gipuzkoa despido-rik ez! Zuzendaritza aldatu orain!* lemapean eta 11n, berriz, Orioko zubian bildu ziren.

IDI DEMA Garmendia txapeldun

Aiako idi dema txapelketan Belauntzako Garmendiaren idi parek izan zen onena, finalean 55 plaza eginda; bigarren sailkatu zen Letea eta hirugarren izan zen Bixikiaren animaliak baino bi plaza gehiago: 53 plaza, 3 zinta eta 1,97 metro egin zituen aurrenekoak; 53 plaza eta 2,35 metro bigarrenak. Faboritoak nagusi, beraz.

JENDARTEA Telefono gida

Aiako, Getariako eta Zarauzko komertzioen, enpresen eta partikularren telefono-gida banatu du UTS enpresak etxetz.

AIAKO LEHIOA

Atzo san Jose eguna

Asko oroitzen naiz san Jose egunarekin. Eznik santutan sinisten dudalako baina: batetik, urteko Pazkoakoa ere egun horietan egiten genuelako. Jau-nartze berezia, txartel eta guzti.

Labean erretako arkumea ere, egun horretan jateko ohitura zelako eta abar. Horrela-koak gogoan geratzen dira.

Bestalde, berriz, badakizue ze gizarajo tankera zuen san Josek, lehengo logelatan orman zintzilik egoten ziren santu koadro handi haietan.

Karmengo Ama Birjina, Jesus haurra magalean zuela, eta san Jose gizarajoa aldamenear arotzerian esku garloparekin egurra lantzen. Burusoil antzekoa eta bizar handiarekin. Tontoetarainoko, denok errukitzeko

moduan.

Gainera, ez daukat zalan-tzarik on puxka bat izango zela. Berari denak aginduko zioten, eta berak inori ezin izango zion agindu.

Bestela nola daiteke bada; zera, Maria birjindade osoz

jarri zela haurdun; eta bizi ziren etxea norenaz, Maria-rena ala Joserena?

Ez dute zer ulertzen. Maria eraman zuten Joserengana zaindu eta mantendu zezan, ala Jose morroi bidali zuten Mariarengana? *Derecho a coci-*

na egon zen, ala zerbaiten truke? Dotrina zaharrak argi-bide gehiegi ez zigun ematen. Gainera, haurraren aita ez bazen, zertan ibili behar zuen mando gainean Maria neskatxa hartuta estalpe bila haurra jaio zedin? Arotza izanda, etxean ez zuen etxola bat tajutu? Hori nork ulertu!

Gainera, Mariaren aldean zaharra agertzen da; santu irudietan ez zen bada Maria neskatzaren aita izango? Eta alaba gorde ezinik gizarajoa?

Edozein erataria ere, on puxka bat izan behar gizarajoak.

Eskerrak bai, bere egunean arkume errea jateko ohitura jarri zuen norbaitek. Bestela, ipuin hutsarekin behar-ko genuen.

NIKOLAS ZENDOIA

**Badakizue
ze gizarajo
tankera zuen
san Josek,
lehengo logelatan
ormen zintzilik
egoten ziren
santu koadro
handi
haietan**

**Mariaren aldean
zaharra
agertzen da Jose;
santu irudietan
ez zen bada
Maria
neskatzaren aita
izango? Eta alaba
gorde ezinik
gizarajoa**

TXOKOAK ETA JENDEA



Gure kirolari gazteak

Hemen dituzue Lardizabal eskolako umeak ostiraleko kirol saioa egin eta gero, Iñaki Esnal eta Jose M. Aiertza entrenatzaileak alboetan dituztela. Joan den larunbatean plaieroetan benjaminek 8-3 irabazi zuten, denboraldiari bukaera ezin hobea emanez; eta alebinek, berriz, 3-2 irabazi zuten, horrela finalaurretarako sailkatuz. Futboleak ez ezik, eskubaloian, saskibaloian eta atletismoan ere jarduten dira, aspertzeko denborarik gabe. Zorionak kirolari eta entrenatzaileei!

*Euskal Herritik
kanpoko berrogeita
lau etorkinek eman
zuten izena euskara
ikasteko.*

*Antolatzaileek ere,
ez zuten espero
ikastaroak
halako harrera ona
izango zuenik.
Etorkinek argi utzi
dute euskara
ikasteko laguntza
pixka bat eta gogo
besterik ez dela
behar: ikasgai
ederra bertako
askorentzat.*

MIKEL ARANZABAL

Hamasei herrialdetako eta arraza ezberdinetako berrogeita lau lagun elkartu dira: bi argentinarrak, sei senegaldar, urugaitar bat, bi ekuadortar, bost brasildar, ukrainar bat, bi marokoar, hamairu nikaraguar, hiru espainiar, guatemalarrak, belgikar bat, kolonbiar bat, mauritaniar bat, hiru katalan, kubatar bat eta saharar bat. Modu horretara txisteren bat hasi litekeen arren, ez da barre egiteko kontua, asmo batek egiten baititu kide horiek guztiak: euskara ikasteko gogoak.

Orioko Udaleko Euskara Batzordeak bideratuta, uste gabeko harrera izan du aurtengo etorkinek euskara ikas dezaten antolatutako AISA ikastaroak. HABEk eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Immigrazio Zuzendaritzak babesten dituzte ikastaro horiek, eta 44 lagunek eman dute izena Orion. 10 euro ordaindu behar izan ditu ikasle bakoitzak.



KARKARA

AISA | ETORKINENTZAKO EUSKARA IKASTAROA

Orioko etorkinek ere euskaraz hitz egin nahi dute



KARKARA

Otsailaren 16an hasi ziren euskara ikasten, hutsetik, eta maiatzaren 12a bitartean astean hirutan biltzen dira: astelehenetan, astearteetan eta ostegunetan. Gazteak dira gehienak eta ordutegi oso ezberdinak zituztela-eta, lau taldetan banatu dira.

Goizez, 10etatik 12etara, 12 lagunekoko talde bat dago; arratsaldez, 16etatik 18etara, 10 ikasleko beste bat; eta, iluntzean, 18:30etik 20:30era hamaikana ikasleko beste bi talde. Beraz, sei ordu pasatzen ditu astean euskara ikasten ikasle bakoitzak. Euskara eskolak kultur etxean hartzen dituzte.

Zarauzko AEK-k jarri ditu irakasleak. Nerea Cabello goizko taldeaz eta iluntzeko batez arduratzen da eta Eukene Caballero, berriz, arratsaldeko taldeaz eta iluntzeko besteaz.

Alde batetik, eta gehienbat, hiztegia ikasten dute, egunerokotasunean erabiltzen diren hitzak, agurrak, tresnen ize-

**Otsailaren 16an
hasi ziren
euskara ikasten,
hutsetik, eta
maiatzaren
12a bitartean
astean hirutan
biltzen dira:
astelehenetan,
astearteetan eta
ostegunetan.
Lau talde osatu
dituzte**

nak, zenbakiak, orduak... Bestalde, AISA liburuarekin gramatika lantzen dute, ikasitako hitzekin esaldi osoak antolatzeko eta hitz egiteko gai izan daitezten.

Barrezka, algara batean, gustura aritzen dira eskoletan eta gutxitan huts egiten dute, oso gutxitan.

**Oraindik data
erabakitzeko
badago ere, AISako
ikasle eta
irakasleen,
Udaleko
ordezkarien eta
Errikotxia
bertsolari
elkartearen artean
afaria edo bazkaria
egiteko asmoa
dute soziedadean**

USTEGABEKO ARRAKASTA
Ez da lehen aldia Orioko Udaleko Euskara Batzordeak etorkinentzat euskara ikasteko eskolak antolatzen dituela, baina oraingoan ezustea eman dute etorkinek. Orain hiru urte bi talde osatu ziren, baina aurten lau talde elkar-tu dira: erantzun aparta.

ALKATEAREN BISITA

Astelehen goizean, martxoaren 16an, Jon Redondo Orioko alkatea izan zen ikasgeletan bisitan. Ikasle bakoitzari Orioko euskarazko *Oriotarrak kantu kantari* 3 liburuen ale bana oparitu zien alkateak eta berekin hizketan jardun zen. Eskerrak eman zizkien Orioko alkateak euskara bezalako hizkuntza zaila ikasten ahalegintzeagatik eta, aldi berean, gogor ikasten jarraitzeko animoak eman. Hurrengo astean berriz joateko asmoa du Iñaki Iturain Euskara batzordeko buruarekin batera.

Oraindik noiz egingo den erabakitzeko badago ere, AISako ikasle eta irakasleen, Udaleko ordezkarien eta Errikotxia bertsolari elkartearen artean afaria edo bazkaria egiteko asmoa dute soziedadean, kantu liburuko abestiak kantatzeko. Ikasleek, besterik ez bada ere, balearen bertsoak ikasteko ahalegina egingo dutela hitz eman zuten.

EUKENE CABALLERO | AISAKO IRAKASLEA (AEK)

“Hobeto integratzeko balioko die euskarak”

AEK-k ikastaroa ematea proposatu zionean, agian, talderik ez zela osatuko ere esan zioten; baina, azkenean, Nerearen laguntza behar izan du.

Ikastaro honen helburu nagusia eguneroko zereginetan euskaraz baliatu ahal izatea dela eta, etorkinak direla kontuan hartuta, hutsetik hasi dira euskara ikasten. Ahal den neurrian, gizartean hobeto integratzeko balioko die euskaraz hitz egiten jakiteak eta gutxieneko hori irakasten diegu.

Gramatika pixka bat ere erakutsi behar zaie, baina gehienbat hitzegia. Ikastaro honen funtsa ez da euskaraz ondo hitz egiten ikastea, bai-

zik eta ikasten dutena kalean erabiliz lagunak errazago egitea, erosketak egiterakoan... euskaraz mintzatzea.

Hiztegia zazpi hizkuntzatan dugu, baina ariketa liburu euskaraz eta gaztelaniaz bakarrik. Horregatik, nikuste, euskara ikasteko zailen Senegalekoei egiten zaie, ez baitakite ez bata ez bestea. Zortea izan dut eta jubilatuta dagoen ikasle belgikar bat ere badut klasean, beraz, berak itzultzen die frantsesera. Asko laguntzen diote elkarri eta



horrek, euskara ikasteko balio izateaz gain, nire lana errazten du.

Azken finean, beste hizkuntza bat ikasi nahi duen edonork praktikatu egin behar du. Badakit batzuk kafea hartzeko eta euskaraz hitz egiteko geratzen direla, baina nik, badaezpada, etxekolanak agintzen dizkiet, gehienbat astebururako. Ez da beharrezkoa etxekolanak egitea, baina segituan igertzen da nork egin dituen eta nork ez. Klasera etortzen direnerako

Beste hizkuntza bat ikasi nahi duen edonork praktikatu egin behar du

euskara ikastea zaila dela pentsatzen etortzen dira, txip hori barruan sartuta dute. Nik lasai hartzeko esaten diet, ikasitakoa kalean lasai botatzeko eta pixkanaka ikasiko dutela.



KARKARA

Saharako umeekin etorri nintzen begirale gisa Oriora 2001ean eta, hemen lan egiteko aukera ateratzaidanez, bertan gelditu nintzen, horrela Tindufeko kanpamenduan dudak familiari laguntzeko.

Orio asko gustatzen zait: kostaldeko herria, txikia, xumea... Lehenago Kuban izan nintzen Geografiako ikasketak egiten —irakaslea naiz berez— eta han ere integratzen saiatu nintzen. Mendebaldeko Sahara/Espainiako

Saharatik Euskal Herrira etorri aurretik ere banuen euskararen berri

kolonia ohia dela eta badakit gaztelaraz hitz egiten eta horrek, modu batera edo bestera, asko lagundu dit bai Kuban eta baita hemen ere.

Izan naizen herrialde guz-

MOHAMED SALEM SID GHRIMITCH | ZERBITZARIA

“Beti ezagutu dut euskal herritarren elkartasuna”

Ghrimitch sahararra da izatez eta euskalduna bihotzez. Bere herrialdeko umeei laguntzeko etorri zen eta orain hemen dabil tabernari lanak egiten.

tietan bertako kultura ikasten saiatzen naiz, errespetuagatik, eta orain dela hiru urte ere saiatu nintzen ikastaro bat egiten, baina bilagunek bakarrik eman genuen izena. Oraingoan horrenbeste jende apuntatzeak kanpotarrok integratu nahi dugula adierazten du eta hori oso ona da, kultur aniztasunak aberastasuna ematen baitio herri bati, herriaren kultura baztertu gabe.

Euskal Herrira etorri aurretik ere banuen euskararen

berri. Eusko Jaurlaritzak Saharako kanpamentuetara laguntza bidaltzen du eta euskal solidario eta boluntario asko joaten da hara. Beti ezagutu dut euskal herritarren elkartasuna eta, agian horregatik, euskal kulturak bereziki interes handia piztu izan dit beti.

Zortzi urte dira ezin izan naizela familiarengana itzuli, baina aurten joateko asmoa dut. Hala ere, neska laguna oriotarra dut eta nire etorkizuneko planak ere herri honi begira egiten ditut.

ESTEFANIA BUSTAMANTE **TETI** | ZERBITZARIA

“Euskaraz hitz egiten digutenei esker ikasten da”

Argentinarra da Teti, orain dela bost urte oporretara etorri zen gurera eta oraindik ez da etxera itzuli. Orioko taberna batean dabil zerbitzari.



KARKARA

Buenos Airesekoa naiz eta sukaldaritza ikasketak ditut eginak. Ahizpa Orion bizi zen eta orain bost urte bera bisitatzen etorri nintzenetik hemen bizi naiz,

asko gustatzen baitzait bertako giroa.

Hasieran asko kostatzen zidan jendearekin harremana izatea, hizkuntzagatik zela uste dut, edo arrotza nintzelako edo, agian, ni nintzen ausartzen ez zena. Euskaldunek ezezagunei ez diete kasu handirik egiten, baina konfiantza pixka bat lortzean dena ematen dute, eta hori gustuko dut.

Orain bertako kultura eta jendea ezagututa, lehen baino integratuago sentitzen

naiz, lagun pila ederra egin dut eta haiekin baserritarrez ere jantzi edo inauterietan moztortu izan naiz, bat gehiago sentitu arte.

Euskaraz hitz egiten ez jakiteak ematen dit pena, hemen asko baloratzen baita. AEBetara joan eta ingelesez ikasten baduzu inork ez zaitu zorionduko, baina euskaldunek garrantzi handia ematen diote. Horregatik hasi naiz euskara ikasten, nigatik baino gehiago, inguran ditudanei zor diedalako.

Lehen, tabernan, gehienek gaztelaniaz hitz egiten zidaten argentinarra naizela dakitelako, eta beste batzuek, hala ere, euskaraz bakarrik egiten zidaten. Azken horiei esker dakit euskaraz dakidan gutxi hori.

Ikastarotik ateratzean kideekin kafea hartzen joaten naiz batzuetan eta ikasitakoa lantzen dugu. Konfiantza dudana jendearekin ere saiatzen naiz, baina ez gehiegi. Mesedez, hitz egidazue euskaraz, ikasi nahi dut-eta.

Nigatik baino, inguran ditudanei zor diedalako hasi nahiz euskara ikasten



KARKARA

Katalana naiz eta argentinarrarekin ezkondu ta nago. Orain bi urte lehen semea izan genuen eta iaztik Orion bizi gara.

Ohituta nago izaten naizen herrialdeko hizkuntza ikasten. Ikasketak Ingalaterran egin nituen eta han nahi eta nahi ez ikasi behar izan nuen ingelesez eta hemen gaztelania erabiltzeko aukera ere badut. Gainera, han euskaldun asko zegoen eta nabarmena zen ingelesaren bizimodura integratzeko zuten gai-

tasuna; andaluziarrek, esaterako, ezin zuten.

Askotan izan naiz lehenetik ere Euskal Herrian. Ahal nuenean bisitan etortzen nintzen, baina beti etxera itzuli behar, garestiegia zen eta.

Egun batean, lan egiten dudana enpresak Euskal Herrian ordezkaritza ireki behar zuela esan ziguten lantokian eta norbait behar zutela esan zutenean, inorkaurrea hartu baino lehen, eskaini nuen nire burua. Emaztearekin kontsultatu nuen lehena-

JUAN MANUEL SANCHEZ | ELEKTRONIKAN TEKNIKARIA

“Hemen bizi nahi genuen eta kitto, hemen gaude”

Lan egiten duen enpresan Euskal Herriako norbait behar zutela eta, emaztearekin aztertu ondoren, boluntario aurkeztu zen. Irrikitan zegoen gizona.

Semeari katalanez hitz egiten jarraituko dut, bera ere, ni bezala, katalana baita

go, jakina, baina ez genuen inolako zalantzarik izan. Lanarengatik Euskal Herri osoan ibili behar dut, hara eta hona, eta bizitzeko lekua aukeratzeko ere zalantzak izan geni-

tuen. Bilbo eta Bizkaia aldean hasi ginen begira eta, gero, Donostiara joatea pentsatu genuen. Baina... emazteak Orio oso begi onez ikusi zuen semea hezteko eta hemen gaude.

Orain, bada, lagunak egin ditugu herrian eta gehienek euskaraz hitz egiten dute beren artean; beraz, lanagatik, errespetuz eta gogoz, ikaslea erabaki dut.

Hala ere, semeari katalanez hitz egiten jarraituko dut, bera ere katalana baita.

KARKARA

Hogei urte ia bizitza osoa da

A bestiak dio 20 urte ez dela ezer, eta egia da neurri batean. Atzera begira hasten banaiz eta KARKARAko lehenengo zenbaki haiek ekartzen badituz gogora, hala iruditzen zait, atzoko kontua dela Anaren etxean elkartzen ginela hurrengo aldizkaria kaleratzeko. Bestalde, ordea, KARKARAREkin lotuta hainbeste gauza datozkit burura: zenbat kostatzen zitzaigun hasieran hiru hiletik behin zenbaki bat ateratzea! Pixkanaka-pixkanaka, oso pixkanaka, nola hasi zen forma hartzen orain dugun KARKARA. Aldaketa bakoitzak zekarren bertigoa. Lan-taldean izandako jende aldaketak. Herriar batzuen haserreak (nola ahaztu ezizenen erreportajeak harrotu zituen hautsak!). Beste batzuen esker ona. Igande arratsalde batean aldizkariaren azken zenbakia atera nahian genbiltzala ia udaletxea erre genuela. Inguruko baserri batzuk eta



ANA ITURAIN
IRAKASLEA

bertakoak ezagutu nituela KARKARAN egin genituen lan batzuei esker. Hasieran, pentsa! idazmakina batean idazten genituela artikulua. Gero Macintosh a ekarri, eta kostata aritu ginela hasieran (A, zer pazientzia Jabirena gure txapuzak zuzentzen). Oraingoan aldean oso txarrak ziren iragarkiak egiteko zenbat denbora behar genuen. Bestela

sekula ezagutuko ez nuen jendea ezagutzeko balio izan didala KARKARAK. Ezin dut esan, beraz, 20 urte ez dela ezer.

Horixe bera gertatzen zait nire bizitzan atzera eginez gero, iruditzen zait atzoko kontua dela unibertsitatean nenbilela, baina badira 20 urte edo gehiago ikasketak bukatu nituela. Geroztik bizipen asko ditut gogoan: lana, heriotzak inguruan, jaiotzak ere bai, bidaiak, lagunak ezagutu... Hortaz, ezin dut esan 20 urte ez dela ezer.

Oriori begira hasiz gero ere, hainbeste aldaketa izan dira azken 20 urteetan: hondartza ingurua erabat dago aldatuta, baita eliza aldea, udaletxea, erribera eta Ibai Ondo pasealekua ere. Oraingo herriak ez dauka zerikusirik nire aspaldiko oroitzapenekoarekin, izan ere, itxuraz gain bestelako aldaketak ere izan dira: jende asko joan da, beste asko jaio, kanpotar asko etorri da gurerara...

Esan genezake azken 20 urte hauetan Oriok izan duen aldaketa aurreko urte asko eta askoan izandakoa baino askoz handiagoa izan dela.

Gainera, aldaketak aldaketa, denbora horretan makinan bat estropada izan dira, udal-bilkurak, hauteskundeak, hitzaldiak, softbol eta futbol partidak, bertso-saioak, festak, idi-demak, Gabonak, Korrikak, kontzertuak... Nola esan, bada, 20 urte ez dela ezer.

20 urte ia bizitza osoa da pertsona batentzat eta herri batentzat ere, dezente dira.

Azken 20 urte horietan KARKARA hor egon da, gertatzen denaren lekuko eta baita protagonista ere zen baitetan. Eta ni, gutxi egin badut ere, pozten naiz KARKAREN parte txiki bat izan izanaz, lekukotasun horren partaide izanaz, garbi daukadalako eman baino jaso egin dudala.

**"Pozten naiz
KARKAREN parte
txiki bat izan
izanaz,
lekukotasun
horren partaide
izanaz, garbi
daukadalako eman
baino jaso egin
dudala"**

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

FISIOTERAPIA Gorkitz Ariztegi eta Natalia Willemsen
NUTRIZIONISTA Gorkitz Ariztegi

sinergia investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TIOREKAK - BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM
AENOR E-Net
ISO 9000
Estorako balbula
AENOR kalitate ziurtaginduna

URAITZ
burdindegia

Enlutaiz Tfno: 943 83 18 97

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak
feruranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

ADARRETATIK HELDUTA

Muntoko planaren kontra

Arkupe elkarteak Gipuzkoako Merkatarien Elkarteko kide da aspaldian. Orain, Dendartean izena duen elkarte horrek errekurso kontentzioso-administratiboa jarri du 2009ko otsailaren 20an Orioko Udalaren kontra eta, idatzi honen bidez, errekurso horren nondik norakoak eta arrazoiak azaldu nahi ditugu.

Orioko merkatarien elkarteak, Arkupe elkarteak, 2006an hasi zen Munto inguruko plan partzialaren tramitazioan izan diren irregulartasunen kontrako ekimenak bultzatzen.

Azken hiru urte hauetan Orioko Udalak hainbat irregulartasun egin ditu, plan partzial hori onartu eta bideratzeko tramitazioan, ez baititu kontuan izan plan partzialaren barruko proiektuak burutzeko erakundeek eskatzen dituzten azterketak eta ez baititu kontuan izan, ezta ere, zein diren aplikatu beharreko arauak. Aipatzeko modukoak dira, baita ere, kontu honek dauzkan aurrekari administratiboak: auto judizialen metaketa, alde batetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako epaia, Orioko Arau Subsidiarioak baliorik gabe uzten dituenak.

Gure salaketak lau zuzenbide-oinarri nagusi ditu: alde batetik, uste dugu ez dela Itsasertzen Legea bete, apartakaleku pribatuei dagokienez; bestetik, Muntoko plan par-



BITTOR LIZARRIBAR
DENDARTEANEKO PRESIDENTEA

Azken hiru urte hauetan Udalak hainbat irregulartasun egin ditu, plan partzial hori onartu eta bideratzeko tramitazioan

Udalak sustatzaileekin konplizitatean jokatu du: babes ofizialeko etxebizitza gehiago ez egitea eta, horren partez, merkataritza gune handi bat sustatzea

tzialaren tramitazioan ez da kontuan hartu inguru horrek daukan arriskua urak hartuta bukatzeko; hirugarrenik, azterketa hidraulikoa ez da jendaurrean jarri, gaiari buruzko arauak agintzen duten eran; eta, azkenik, ez dira bete plan partziala behin-behingo eta behin betikoz onartzeko epeak.

Aurrekari horiek guztiak ikusita, begi bistakoa da Orioko Udalak sustatzaileekin konplizitatean jokatu duela, honako helburuarekin: babes ofizialeko etxebizitza gehiago ez egitea eta, horren partez, merkataritza gune handi bat sustatzea.

Elkarteko kideok espero dugu errekurso eta salaketa honek balioko duela argitzeko zergatik izan dugun azken urteotan horrelako enfrentamendua Orioko Udalarekin, eta espero dugu Orioko herritarrek aukera izatea espazio publiko hori behin betikoz erabiltzeko.

Gaiari dagozkion dokumentu guztiak ikusi nahi dituenak, gure web orrian <http://www.arkupeorio.com/>, aurki ditzake *artikulu eta iritziak* atalean.

NIRE HONETAN

Korrika gabiltza

Lagun batek dio berak ez duela inoiz korrika legiten, korrika egitea kobardeena delako, jende koldarrarena, alegia.

Brometan esaten du, jakina; baina antzematen zaio barru-barrutik sinesten duela korrika ibiltze hori ez dela batere parte onekoa.

Ni ere eskola horretakoa naiz. Beti pentsatu izan dut neurriz gainera garrantzia ematen diogula kirolari, eta sekula ez dut ondoegi ulertu kirol ekitaldien inguruan sortzen den *epika* hori, kirolaria heroia eta herritarrek miresle-artaldea bihurtzen dituenak.

Txikitatik edozein jardura konpetitiborako erakutsi dudan gaitasun eza totalari zor zaio, beharbada, nire ezaxola; baina, nolanahi ere, halaxe da: inguruko gehienei ez bezala, kirol kontuek ez didate inolako grinik edo berotasunik sortzen.

Hala ere, kontraesanetatik inor ez baitago libre, korrika egiten da ni gehien hunkitzen nauen euskararen aldeko ekitaldia, AEK-k bi urtetik behin Euskal Herri osoaren jiran antolatzen duena, eta bertan itxura antzean parte hartzeko, hor nabil ni ere entrenatzen azken asteotan, galtza motzetan saltaka, piura barregarrian.

Euskarak ematen dizkigun lanak!

JABIER ZABALETA

MA*NA lokutorioa

Garraio • iturritik • iturritik (gure, zuzenak, zuzenak...) •
 iturritik (gure, zuzenak, zuzenak...) • iturritik (gure, zuzenak, zuzenak...) •
 iturritik (gure, zuzenak, zuzenak...) • iturritik (gure, zuzenak, zuzenak...) • iturritik (gure, zuzenak, zuzenak...)

Endaia enparantza,1
20810 ORIO (Gipuzkoa)

Tel./Fax: 943 13 50 82
loca-mana@euskalnet.net

Allianz

Marigre Zaldia
aseguru agentea

801 Ondo, 10 bete-ona
 telefonoa: 943 13 47 60
 faxa: 943 83 57 52
 e-maila: zaldia@delacruz-pagafian.es

Ille apaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
 Tel. 943 13 47 29
 ORIO

MOILA BAZTERRETIK

Hipotesi bat



GARBIÑE MATEROLA

Hipotesi bat: Bikamio-tako jendea herri sarrerakoa baino txutxu-mutxuzaleagoa da. Logika apur batekin esplikatzuz gero ulertuko duzue. Irakurri, irakurri.

Ezinezkoa da benetan

herri santu honetan puntuala izatea. Kanpotarrek barre egiten didate hori esatean, baina egia da! Orion ez da korrikalari finik inoiz izango, ezinezkoa baita 500 metro eskas hogeita hamar minututik beheragoko denbora tartean egitea. Ala bakarra ote naiz etxetik pare bat enkargutxo egitera atera eta 2 orduko berriketa saioa eginik bueltatzen dena? Nola ez da bada herri arraunlaria izango, errioa autopista bat da-eta herriko kaleen aldean! Kalera atera eta lehenengo koadrilakoren bat; gero, berriz, izeba edo lehengusua, edo auskalo zein. Denekin edukaziozko 10 minutuko berriketa saioa. Kontuan izan herri honetan ezezagun baino ezagun gehiago ditugula denok ere, ekuaizioaren emaitza posible baka-

rra, beraz: beti berandu hitzorduetara.

Eta, noski, berriketatxo saio horiek izaten dute bere ondorioa. Ahoz ahokoa baita herriko berri jakiteko biderik eraginkorrena—barkatu, KARKAREN egileak, ez duzue Pulitzerrik merezi—. Belarrien gozamenerako gazi-gozo ugari izaten da bazterretan. Eta zenbat eta distantzia luzeagoa egin behar, are eta handiagoa jasotako informazio kantitatea eta, era berean, informazioa elkartrukatzeko probabilitate handiagoa. Ondorioz, Bikamiotakoak txutxu-mutxu zaleenak, eta nire hipotesia, lege zientifiko.

Badira pare bat aste, etxetik autobusera eta autobusetik etxera nabilela. Lasai, ez nator-eta langile finenaren sariaren bila. Herri sarreran

Ezinezkoa da benetan herri santu honetan puntuala izatea

Ahoz ahokoa da herriko berri jakiteko biderik eraginkorrena —barkatu Karkara—

bizitzea autobusera garaiz iristeko aukera polita izaten da, baina horrela ezin koadrilakoen artean zabaltzeko trapu zaharrik izan. Il Gelaton ikas-taro trinkoren bat egitea ote da sarrerakoon apartheid hau hobetzeko aukera bakarra?

aroztegia MIRANDA
Jose M. Miranda

farfesa, arto, lotito, eskalera...
bestur dituen artoz lanak
egiteko dituzkugu

Udazketa bidet. 1 +655 42 52 70 - ZARAUZE

ODITZ

*Barra zahar eta zintak
guztira muntatzen ditugu*

tel. 943 83 00 89

PERTSANAK
AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

tel. 943 13 29 01 Muzikara 600 70 52 27

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontoi andean
Ifnoa: 943 83 01 89

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk
telefon: 943 83 08 12

islada
BASTIDIA ZENTROA

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Bulearen kalea, 2 beheko Oriko 20810
Tf: 943 433 836
e-mail: isladaorio@hotmail.com

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia
Etxeko produktuak: txipaki, odolki,
txakorra, txarizo, krakotak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

Portu ERRETEGIA

Santa Eireka Auzoa, 29
943 89 44 64
20809 AIA-ORIO

*Eusko herriko produktuak
guztira erosten ditugu*

Igo zaitoz haize berrietara!



Galeerna I

943890416-677149932
galeerna1orio@hotmail.com



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



TORREALDAY
aholkularitza

Agentea: Olariaga

Berezitasunak:

- ✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa, Txekin.
- ✓ Aseguru artekanitza.
- ✓ Finken administrazioa.

Bazvalde 4, beheko. Tel: 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 93 www.atctorrealdays.com e-mail: olariaga@olariaga.com



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tlfona: 943 83 59 00

Izarna

ERREBELATU DIGITALA MOMENTUAN

ESKaintzek HARRITUKO ZAITUZTETE ETORRI!



Bideo Produksioa



Gure Txoko
Aizpaga Kalea

HAIZE BERRI
tuberna-jatebidea-kafetegia

Plater konbinatuak, bakatak, hamburgeruak, razioak, egurko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Bizkaia kalea, 11 - 48912 81 16 22 - Euzko gudari 18

Faroeko bakailaia daukagu

ITSAS MENDI

gutiztiak

Euzko Gudari, 5 - Tel. 943 24 87 74 - Orio

ITZALA
kartela jokatzeko zutitza

tel. 943 83 12 59

KOLON TXIKI
enbatazko jaserak

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44



kutxa

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Alkizorako zerbitzuak
* Belatorio gelak
* Koroak, eskelak, tramitazioak...

Azaba kalea, 35 Zarauz

Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 88 48 41
e-mail: harraspil@harraspil.net

Lizaso
dekorazioa



Euzko Gudari, 40
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 83 07 85

LORETXU JATEKIA



Euzko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

LURDES
ENTRANDEGIA



Euzko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24



1958ko banderen bedeinkapena

Mende erdia pasa da goiko argazkia egin zen egunetik.

Garai haietan estropada gutxi jokatzen zenez, 1958an Orioko arraunlariak bi bandera bakarrik lortu zituzten: Zarauzkoa, trainerilletan, eta Kontxakoa traineruarekin. Oriok orain arte herriratu dituen 31 Kontxako bandera horietako bat izan zen hura.

Urte hartan ere, Kontxakoa irabazi eta egiten

zen moduan, banderen bedeinkazioa egin zen eta ordurarteko bandera guztiak atera zituzten 58koekin batera elizatik pasatzeko. Arraunlari bakoitzarekin senide bana joan zen eta argazki honetan ikus daitezke horietako batzuk.

Ezkerretik eskubira: Felisa Elizondo, Pepita Wangeneberc, Manolita Azkue, Nati Etchezarreta,

Datoko palazioko etxekoandrea, haren alaba aurrean, eta Ramona Oliden.

ARGAZKIA: OLIDEN HARATEGIA
INFORMAZIOA: ITZIAR OLIDEN

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

Goizeko
KAFETEGIA
☎ 943 83 28 55
Aita Lertxundi, 33 behean ORIO
Autobus parada ondoan

Gabon
TABERNA
plater handiak apintxoak
Tfnor: 943 83 06 09

Dorronoro Denda
1961etik zure ondoan
AUKERA HANDIAGOA
FRUTATEGIAN
Tel 943 83 09 37

KRITIKA



Printze Txikia hegazkinarekin basamortura erori zen gizonaren lagun egin zen.

KARKARA

Istorio polita, baina uste baino txikiagoa printzea

U rte asko daramatza Enkarni Genuak eta Manolo Gomezek osatutako Txotxongilo Taldeak haurrentzako emanaldiak eskaintzen; ia 40 urte. Esperientzia handiko bikotea da, dudarik gabe, baina umeeekin asmatzea ez da erraza, eta horixe bera pentsatuko zuten Orion, martxoaren 12an, izandako emanaldian ere.

70 bat neska-mutil kokor agertu ziren kultur etxera, *Printze Txikiaren* istorioa entzuteko irrikaz. Eszenatokia guztiz itxuraldatuta zego-

en, ikusgarri: bi oihal handik —laranja bata, beltza bestea— ezkututzen zituzten atzean gordetik zeuden antzezleak. Argi jokoek kultur etxeko areto osoa hartu zuten eta haurrak aho zabalikutzi. Tarteka algar batzuk ere entzun ziren, batez ere, gurasoak ernegatzeko haurrek erabiltzen duten *dena kopiatzeko estrategia* bera erabili zutenean txotxongi-loek ere.

Bestalde, Anne Landa akordeoi jotzaileak goxotasun eta berezitasun puntua jarri zizkion ikuskizunari,

musika zuzenean joz.

Hala ere, ikusle txikien hasierako egonezina, pixkanaka-pixkanaka itzaltzen joan zen. Marmarrak, hizketaldiak eta ipurdia hara eta hona mugitzean ateratuko soinuak gero eta sarriago entzuten ziren. Seinale txarra.

Txotxongilo saio hau baino politagoa egin ditu, esan zidan alboan eserita nuen amak, haurra besoetan zuela. Nahikoa esaten du esaldiak berak bakarrik.

LORE BERSALUZE

IKASLEAK IDAZLE



JUDITH SEGUROLA |

DBH 4KO IKASLEA

Korrika

P asa dira jadanik bi urte azkeneko Korrika egin zenetik. AEK-k bi urtez behin antolatzen duen lasterketa erraldoia da Korrika. Martxoaren 26an hasiko da Tuteran eta Gasteizera apirilaren 5ean iritsiko da. Oriotik ere pasako da, oraingoan, apirilaren 2an, ostegunean.

Aurtengo Korrika 16ko leloa *Ongi etorri!* da. Mezu hori euskara berreskuratzen lagundu behar duten erakundeei, euskalgintzan dabiltzanei, euskalzaleei, euskaldunei eta euskaldundu nahi dutenei, bertakoei eta kanpotik datozeinei zuzendua dago.

Beti bezala, abestia ere badu Korrikak. Aurtengo kantaren izena *ongi etorri, lagun!* da. Betagarri taldeak kantatzen du. Hitzak, ordea, Jon Maiarenak dira.

Oso egokia iruditzen zait jarduera hori egitea. Denon artean euskara aurrera bultzatzen laguntzen baitugu.

Automóviles ZARAUTZ
CITROËN ZERBITZU OFIZIALA
ZARAUTZ. Tel. 943 13 13 50

taller mekanikoa
AUTO-LAN C. B.
Lurruna joan gabe talde berria zure zerbitzura.
Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34

Kinkladenda- Uma arropa
argine
www.lasonef.com/argine
Tel. 943 13 48 89
25eko DESKONTUA FAMILIA UGARIEN TXARTELAREKIN

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Eskenatokia gauza sakratua da niretzako. Beti esaten dut errespetu izugarria diodala takilla batera joan, sarrera erosi eta nire ekitaldia ikusteko aurrean jartzen den horri. Zor diot izugarritzko errespetoa.”

BENITO LERTXUNDI

Abeslaria
Berria
2009/03/10

“Kirol erakundea baino gehiago da Real eta oso ondo dago inguruko herrietara hurbiltzea ikastola eta eskoletako haurrek ikusi ahal izateko.”

JON REDONDO

Orioko alkatea
Euskadi Irratia
2009/03/09

OSPAKIZUNA



Patxi Zubizarreta ikastolan

Euskal Idazleen Elkartek Orioko Herri Ikastolarekin elkarlanean antolatuta, Patxi Zubizarreta idazle gasteiztarra ikastolako LHko 3. mailako ikasleekin izan zen martxoaren 12an. Idazlea solasean aritu zen eskolako haurrekin eta ondoren, elkarrekin irakurri zituzten zenbait idatzi.

Horrelako ekimenen bitartez, irakurzaletasuna sustatzea eta literaturaz hitz eginez gozatzea du helburu Euskal Idazleen Elkartek.

ZORITXARRAK!



Ama Birjina txikitu dutenei

Martxoaren 8an barrako Karmengo Ama Birjina arroketan agertu zen txiki-txiki eginda. Ez da izan, ez, jaso duen aurreneko eraso; baina horrek ez dio garrantzia kentzen gertaerari. Esanahi erlijiosoa alde batera utzita, gure arrantzale herriaren historiaren zati bat zen irudi hori, oriotarrentzat garrantzi handia zuena eta duena.

Zenbat eraso eta txikizio gehiago aipatu behar ote ditugu? Zenbat astakeria gehiago ikusi behar?

Zoriotxarrak ematea baino nahiago izaten dugu zorionak ematea; baina beti badago kirtenen bat, asmoa galarazten diguna.



A&E
The Academy of English

Justo Kalea 3, Ibañeta Ondo pl. 8
Zarautz Ori

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

uranga
autozerbitzua



Aliprox

Eusko Gudarikalea 13-15
ORIO
943 83 48 75



AMILIBIA
ENTZIOZAK, S. L.

larri postuetan proiektu
eta instalazioak

gui mutako lehiaketarako
arrazoi-entzuz

Olasagazte auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

Pinturak ELKAR

pintura eta paperatze lanak
zoru leunketa

Abendaño industrialdea
943 83 08 45 / 619 60 23 35
ZARAUTZ

ORAIN DELA 25 URTE

Abortatzeagatik kartzelara bidali zituzten lau emakume

Bilboko Auzitegiko Lehenengo Sailak lau emakume kartzelatzeko agindua eman zuen, abortu-delitua egin zutela salatuta. Epaiaren arabera, haurdun zegoenari 4 urteko, 2 hilabete eta egun bateko kartzela zigorra jarri zitzaion. Hala ere, zigorra 48 hilabete arintzeko eskatu zion Espainiako Gobernuari Epaitegiak berak. Medikuari urtebeteko zigorra jarri zitzaion; eta beste bi emakumeei hilabete eta egun batekoa, abortuan laguntzea egotzita.

TRONTZALARI TXAPELKETA

Martxoaren 6an Euskal Herriko Trontzalari txapelketa jokatu zen Aiako probalekuan, Donostiako Turismo eta Kultura Ekintzetxeak eta Aiako Udalak antolatuta. Kanaerdiko enberrari —1,25 metroko zirkunferentziaduna— 24 ebakialdi egin behar izan zitzioten lehian parte hartu zuten 12 bikotek; tartean ziren Arruti-Ibarguren aiarrak ere.

Mendaroko Elorza eta Larrañagak osatutako pareak izan zen azkarrena, lanak 16 minutu eta 42 segundotan bukatuta. Haien zatiz izan ziren 40.000 pta. eta txapela. Aranzako Errandonea eta Lesakako Leiza izan ziren bigarren (35.000 pta. eta kopa jaso zituzten) eta Urnietako Elizegi eta Belauzaran bikotea hirugarren (30.000 pta. eta kopa eramane zituzten etxera).

1983 MARTXOA

**Euskal Herriko
Trontzalari
txapelketa jokatu
zen Aiako
probakuan,
ikuslez lepo**

**1.000 hektareako
Lukun parkea
inauguratu zen
Laurgainen, Lizardi
olerkaria hil zela 50
urte ospatuz**

**Andu Lertxundiren
Hamaseigarrenean
aidanez nobela
aurkeztu zen
Zarautzen**

AULKI MUGIKORRA

Hilaren 6an aulki mugikorrenko Ligako aurreneko estropada jokatu zen Orion. Koxtapeko, Ur Kirolakeko, Santiagotarrakeko, Nafarroako eta

Orioko ontzi motzak lehiatu ziren, kadete, jubenil eta senior kategorietan, emakumezko nahiz gizonezkoetan.

Biko lemazaindun oriotarrak nagusitu ziren. Biko scullean Santiagotarrak taldeko pareak izan zen azkarrena eta jubeniletan Urkiko arraunlariak izan ziren jaun eta jabe.

LUKUN

Lizardi olerkaria hil zela 50 urte zirela-eta, Lukungo parkea ireki zen Laurgainen, idazlearen omenezko Zuhaitzaren Eguna ere bertan ospatuz. Sasiak eta bazterrak garbitu eta Aldundiko agintariek (X. Aizarna Ahaldun Nagusiak; X. Lasagabaster sailburuak; S. Irulegi diputatuak; I. Murua, Zarauzko alkateak; Tolosako alkate zen I. Linazasorok) eta Zarauzko, Tolosako eta Aiako eskola umeek 162 landare jarri zituzten.

1.000 ha-ko parkea inauguratu zuten horrela. Museo bi ere ireki ziren: Euskal Herriko zuhaitz eta landareen eta pizti-abereena Amezketa-Lardi baserrian; eta Izadiaren eta ingurugiroarena, Sagastizabalén. Agorregiko ola zaharra ere martxan jarri zen.

HAMASEIGARRENEAN AIDANEZ

1982an Jon Mirande saria irabazi zuen Andu Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez* nobela aurkeztu zen martxoaren 18an, Zarautzen.

JAIOTAKOAK

- Gorka Rodriguez Agote, Aian, martxoaren 8an.
- Enara Eskibel Albeniz, Orion, martxoaren 2an.
- Garazi Salegi Agirre, Aian, otsailaren 23an.

EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik egon.

HILDAKOAK

- Ez da hildakorik egon.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



zkue
Tf: 943 13 04 38

advertising
ANTILLA
publicidad
Móstoles, Madrid 28 • TEL. 916 83 24 00

ARKAITZ
Taberna
Pinlgoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak
ABESLARI KALIAK
TEL. 943 83 16 67

GARIKOITZ ERKIZIA ETA IKER ZUMETA | EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETAKO JOKALARIAK

“Gustura egon behar, muslari onenen artean aritu gara eta”

Martxoaren 14an Seguran jokotutako Euskal Herriko mus txapelketan izan ziren Garikoitz Erkizia eta Iker Zumeta Txanka oriotarrak. Handik bueltan harrapatu ditugu.

Zazpi probintzietako muslari onenen artean ibilizarete. Gustura?

Bai, noski. 64 bikotek hartu genuen parte: Nafarroatik eta Gipuzkoatik hamaseina, Bizkaitik zortzi eta gainerako lau probintzietatik seina.

Goizeko 09:00etan hasi ginen jokoan eta lau erregeekin 40na puntuko bi usteletara jardun ginen, Liga moduan: bi partida jokatu eta biak galdu genituen. Goizeko 11:00etarako 32 bikote geratu ziren txapelketan; eta handik aurrera galdutako partidako bikote bat gutxiago. Lehenengo zatian kanporatu gintuzten gu, baina kontentu gaude horraino iritsi garela.

Bukatutakoan, herri bazkaria egin zuten, guztiek batera.

Festa egun ederra pasazenu-ten, orduan?

Dударик gabe. Goizetik hasita, jai-giro aparta zegoen Seguran. Oriotik ere zenbait lagun joan ziren, bonboa eta txaranga hartuta eta aurrera eta atzera han ibili ziren, dantzari eta animatuz. Eskertze-koa izan zen.

Bazkal ordurako, ordea, neka-neka eginda geunden eta arratsaldean partidarik jokatu behar ez genuenez, etxera etorri ginen.

Euskal Herriko txapelketara joateko Gipuzkoakoan sailkatu beharra izan zenuten.

Hori ere Seguran izan zen, otsailaren 28an, beste 52 biko-



Orioko txapelketatik Euskal Herrikora iritsi dira Garikoitz eta Iker.

KARKARA

Goizetik hasita, jai-giro aparta zegoen Seguran. Oriotik ere zenbait lagun joan ziren, bonboa eta txaranga hartuta

terekin batera. Laugarren egitea tokatu zitzaigun, halako eguna izan genuen eta. Hala ere, zorteari dagokiona kendu gabe, meritu pixka bat ere badugu geronek.

Euskal Herrikorako sailkatu ginen Urola Kostako ordezkari bakarrak izan ginen.

Loretxu tabernan ostiralero txapelketak egiten ziren garaietan, orain baino gehiago aritzen ginen musean

Eta hara joateko Orioko txapelketan postu ona lortu behar.

Hemeretzi bikote aurkeztu ginen Balea elkartearen egin-dako saiora, zorteko eguna izan eta guk eraman genuen txapela etxera.

Bi parek lortu behar zuten

Gipuzkoako txapelketarako txartela, baina inguruko herrietako parte hartzerik handiena gurean izan zenez, 3. batek ere joateko aukera izan zuen. Hala ere, bi bakarrik joan ginen, herriko lehia-ketan 2. eta 3. sailkatu zirenek joan nahi ez, eta beste bikote bakarra animatu baitzen.

Musean gizona nagusi?

Emakumezko bateren bat edo beste ikusten zen, baina oso gutxi hartu zuten parte. Oriokoan, esaterako, ez zen bat ere aurkeztu.

Sarritan jokatu al duzue musean elkarrekin?

Lehen, Loretxu tabernan ostiralero txapelketak egiten ziren garaietan, gehiago aritzen ginen. Tarteka sariren bat ere eramaten genuen, gainera. Festetako saioetan ere parte hartzen genuen noizean behin. 18-20 bat urte izango genituen orduan. Orduko oroitzapen ederrak ditugu! Orain, ordea, ia galduta dago musean aritzeko ohitura. Ospe eta entzute handia duen sanmartinetakoa bakarrik izaten da.

Biok elkarrekin jokatzen dugu beti eta egia esan, urteak aurrera joan ahala, gero eta gusturago aritzen gara bata bestearekin, bakoitzak bestearen jokatze modua eza-gutzen baitu, dagoeneko.

**Euskal Herriko usadio zahar-
rrenetako bi —afalosteko
kantua eta musa—galtzen
ari al gara, bada?**

Egia esan, hala dirudi. Afalostetan musean jokatzen dugu, batzuetan, bainalehen-go aldean, gutxi. Herriko tabernaren bat txapelketak antolatzen hasiko balitz, gu, behintzat, joango ginatke. Kantuarena...

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ														
Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:14	06:44	07:14	07:44	08:14	08:44	09:14	10:14	11:14	12:14	12:44	13:14	13:44	14:14
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20
Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20
ZARAUTZ - DONOSTIA														
Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39
Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	22:39

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN						ASTEBURUETAN					
Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia	Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30	08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00	09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30	10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00	11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30	12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10	13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30	14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10	15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30	16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30	17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30	18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10	19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30	20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10	21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30	22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:30	22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30	OHARRA: lanegunetan koord. argidut ordutako autobusak Urbieltz pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, gutxiak pasatzen dira. Koord. funtseko ordutak larunbatetako (laneguna) zerbitzuari bakarrik dagozkie.					
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10						
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30	Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landebusak darama. Zerbitzuari buruzko informazioa lortzeko zentratu bide daude: www.landebus.com Tf: 943 24 01 34 sms-a 5280 zorbakira					
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30						
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30						
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10						
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30						
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30						
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00						

ITSASOA

Martxoa	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
20	12:10 eta _____	05:31 eta 18:13	
21	00:31 eta 13:28	06:59 eta 19:27	
22	01:36 eta 14:16	07:58 eta 20:15	
23	02:23 eta 14:52	08:39 eta 20:52	
24	03:01 eta 15:24	09:13 eta 21:25	
25	03:35 eta 15:55	09:44 eta 21:57	
26	04:08 eta 16:26	10:15 eta 22:28	☉
27	04:41 eta 16:57	10:46 eta 23:02	
28	05:15 eta 17:30	11:19 eta 23:37	
29	06:51 eta 19:05	12:54 eta _____	
30	07:30 eta 19:44	01:16 eta 12:32	
31	08:14 eta 20:29	01:59 eta 12:32	
01	09:06 eta 21:28	02:49 eta 15:08	
02	10:16 eta 22:49	03:52 eta 16:16	☾
03	11:53 eta _____	05:16 eta 17:45	

ZAINTZAKO BOTIKAK



- MARTXOA/APIRILA**
- 20an, Iriarte.
 - 21ean eta 22an, Larrañaga.
 - 23an, G. Artiñano.
 - 24an, Azaldegi.
 - 25an, Zulaika.
 - 26an, Iriarte.
 - 27an, Larrañaga.
 - 28tik 3ra, Lasa.
 - 4an eta 5ean, G. Artiñano.

- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8.
943 13 31 83 Zarautz
- Barrenetxea:** Gipuzkoa kalea,17.
943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12.
943 83 29 70 Zarautz
- Olaizola:** S. Frantzisko kalea, 16.
943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza.
943 83 09 36 Orio
- Uranga:** Zigordia kalea, 17.
943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea
943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41
943 13 39 94 Zarautz

ODOL EMAILEAK

■ Orion, martxoaren 23an odola emateko aukera izango da. Anbulatorioan, 18:30etik 20:30era.

PODOLOGOA

■ Aian, apirilaren 4an. Ordua hartzeko udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, martxoaren 25ean altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira eta udaletxean nolakoak diren jakinarazi.

BINGOA

■ Orion, asteazkenero, Zaharren Babes Lekuak antolatuta. 16:30etik 18:30era, kultur etxeko areto nagusian.

ERAKUSKETAK

■ Martxoa bukatu arte, Ramon Aranzabalen margoen erakusketa. Goizez eta arratsalde, Orioko kultur etxean.
■ Apirila bukatu arte, M. Sol Yabén eta Jabier Vazquezen *Hernanen Fotoforum clic-clac* erakusketa. Salatxo tabernan.

KONTZENTRAZIOA

■ Orion, martxoaren 28an, euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen aldeko

**Mezkita zabalik**

Martxoaren 21ean ate irekien jardunaldia izango da Orioko mezkitan. Zarauzko Udalak *Islama, guztion ondarea* erakusketaren baitan antolatuta, 17:00etatik 18:00etara, tea eta solasaldia izango da; 19:00ak arte, *Muhammad, el profeta del Islam* bideo emanaldia; 19:30ak arte, errezoa; eta 20:00ak arte galdera-erantzunen tarte irekiko da.

elkarretaratze isila.
20:00etan plazan.

ERROMERIA

■ Aian, martxoaren 22an. Ansorregi eta Larrañaga trikitilariekin erromeria. Andatza auzoan, 18:30etik 21:30era.

ELIZA KATOLIKOA

■ Apirilaren 4an, Gipuzkoako Elizak antolatuta, Oñatitik Arantzazura oinezko ibilbidea Bakearen alde eskatuz, lema honekin: *Familia gara. Familian gara.* Autobus txartela apirilaren

1a baino lehen erosi behar da. Aian, Gema Aurizeneak izango ditu; Orion, iluntzeko mezaren ondoren Parrokia-Etxean.

BIZIKLETA IRTEERA

■ Maiatzaren 3an, Orioko Herri Ikastolako guraso elkarteak antolatuta, Arditurriko meategira irteera, bizikletaz. 09:00etan, ikastola aurrean.
■ Izena ematea: apirilaren 3a arte, ikastolan. Prezioa: 13 euro.

ARETO FUTBOLA

■ Martxoaren 21ean, nazional B kategorian: Orioko Tabernak-Sasikoa.
■ Martxoaren 28an, nazional B kategorian: Ceramicas Nogales-Orioko Tabernak.

ARRAUNA

■ Apirilaren 3an, 4an eta 5ean, aulki mugikorrek Nazioarteko Opena.
■ Martxoaren 21ean, batelen Ligako 8. jardunaldia. Getarian.
■ Martxoaren 22an, batelen Ligako 9. jardunaldia. Errenterian.
■ Martxoaren 28an, batelen Ligako 10. jardunaldia. Zumaian.
■ Martxoaren 29an, batelen Ligako 11. jardunaldia. Pasai Donibanen.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke-merke, doako zerbitzua da eta gurea.

GALDUTAKOAK

■ Perla handi bat duen zilar koloreko belarritakoa aurkitu nuen Gabonetan, *casasbaratas*-eko aterpean. Jabeak 670 890 305 zenbakira dei dezala.

■ Martxoaren 14an, lepoko txintxilikario bat galdu nuen kalean. Harri berde bat da, aurpegi azteka bat irudikatzen duena. Asko estimatzen dudana oroigarria da. Norbaitek jaso badu, eskertuko diot udaltzaingora edo KARKARAKO bulegora eramatea.

ALOKAIRUA

■ Pertsona arduratsua behar da Orion pisua konpartitzeko. Tf: 659 73 40 01 (Ainara).
■ Orion bizitzeko lekua alokairuan hartuko nuke, bakarrik ordaintzeko

modukoa. Bestela, elkarbanatzeko interesik badu inork, elkarrekin bila genezake: bizileku@gmail.com.

LAN ESKAINTZA

■ Mutil euskaldun bat behar da baserrian lan egiteko. Interesatuak deitu 943 83 27 44 zenbakira.
■ Bi gazteei gitarrako eskolak emateko irakasle bila nabil. Tf: 649 22 87 87.

LAN BILA

■ Etxeko lanak egiteko edo haurrak eta zaharrak zaintzeko neska eskaintzen da. Berehala hasteko.

Tf: 630 40 66 45.

■ Goiz eta arratsalde, edozer lanetan aritzeko neska eskaintzen da. Berehala hasteko. Tf: 663 58 10 02 (Claudia).
■ Giza Zientziak Enpresan lizentziatua naiz, Irakaskuntzarako Gaitasun Ziurtagiria dut eta Haur magisteritza ikasten ari naiz. Klase partikularrak emango nituzke. Tf: 653 704 516.
■ Ekitaldietako estruktural jartzen eta auto pilotuetako gidaritzan esperientzia dut eta lan bila nabil. Berehala hasteko. Tf: 634 872 383 (Alberto).

